



## CURRICULUMAK

Oraingo curriculumetan oinarrituta, oso konplexua da aholkuak ematea, egoera politikoak etengabe eragiten baititu aldaketak. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi dago Europagintzaren garai honetan europar dimentsioa ezinbestekoa dela, baldin eta ikasle-irakasleok partaide aktibo eta kritiko izan nahi badugu proiektu horren eraikuntzan.

**Curriculumeak ahalbidetzen dute eurodimentsioa eguneroko hezkuntza-praktikan sartzea. Irakasgai batzuetan Europaren gaia zehazki aipatuta dago eta beste batzuetan aise eta berez erlaziona daiteke.**

## GIZARTE ZIENTZIAK

Europar hiritartasunaren mamia eta irakasgai hauen jarrerazko edukiak ia gauza bera dira. Batak zein besteak parte hartzeko balore eta jokamoldeak nabarmenarazten dituzte, gaurko ikasleak biharko hiritar osoak izan daitezten. Ikasleek ikasi beharko dute demokraziaren mekanismoek zelan funtzionatzen duten eta eurek, kritikoki parte hartuz, zer-nola egin dezaketen.

- DBHn, edukiaren aldetik zehazten da ikuspegi europarra, besteekin oreka egokian, aintzat hartu beharra dagoela, gizartearen zer-nolakoak –euskal dimentsiotik hasita- ulertu ahal izateko. Gainera, ebaluazio irizpideetan adierazten da Europaren gutxieneko ezagutzaren garrantzia.
- Batxilergoko Euskal Herriaren eta Espainiaren Historia irakasgaiari buruzko 4. helburu orokorrean honakoa dio: “Euskal Herrian (...) XX. mendean bizi izandako prozesu historiko garrantzitsuenen erreferentzia Europako historiaren testuinguruan aurkitzea, (...)”.

Garbi dago hori XVIII. eta XIX. mendei ere aplikatu behar zaiela. Halaxe egiten da normalean gure klaseetan. Orain jakinaren gainean egin beharko genuke, euskal eta europar ikuspegitik iragan hori gure orainaldiarekin egokiro erlazionatzeko.

Geografia irakasgaiari dagokionez, curriculumean Europari buruzko erreferentzia zuzenez gain (adibidez, 7., 8. eta 9. helburuetan Europar Batasunaren integrazio eta ezaugarriei buruz dihardu), garbi dago ezinbestekoa dela eurodimentsioa gure espazioak eta antolamendu soziala ulertzeko: nekazaritza, demografia, ingurumena, eta abar.

Artearen Historiari buruzko curriculumean adierazten da mendebaldeko artearen agerpen artistikoak behar bezala baloratzeko beren testuinguruan kokatu behar direla.

Era berean, europagintzaren garaiotan Europa osoko arte-ondarearen balioa azpimarratzekoa da, artea europar hiritarren arteko lokarri berritua izan baitaiteke. Kulturartekotasuna eta elkarren arteko eraginak ulertu eta baloratu behar dira.

Munduko historia garaikidearen gaia munduko historiari dagokio eta curriculumak dioenez –adibidez sarreraren metodologia-oharretan–, edozein ikuspegi eurozentriko ekidin edo baztertu behar da. Gainera, 1., 2. eta 3. helburuetan aipatzen denez, behar besteko garrantzia eman behar zaio bai oraingo europagintzari eta bai haren erro historikoari, orainaldian egokiro kokatu dezagun ikuspegi mundualista baten barruan.



## HIZKUNTZAK

Sarrera-helburuetan guztiz garbi dago hizkuntzen eragin zuzena ikaslearen integrazio lokalean zein nazioartekoan, bestelako kulturadun pertsonak uler ditzan, beraiekin erlaziona dadin, bere kultura zabal dezan, eta gizarte eleanitz eta kulturarteko hiritar izan dadin.

Zentzu horretan, hizkuntzak irakasteko zeregina emankorra da europagintzaren oraingo errealitatearekin lotuz gero, errealitate horrek berekin ekarri baitu hizkuntza ugari dituen eta 450 bat milioi lagunek osatzen duten gizartea eta berorren mugikortasuna.

Hizkuntz irakasgai guztien prozedurazko edukiek errazten dute bidea gure ikasleek parte har dezaten nazioartean, eta bereziki Europan, gero eta ugariagoak diren jardueretan. Jarduera horiek hizkuntzak ikastea, konparatzea eta horretan sakontzea errazten dute.

Literaturari dagokionez, Europa zehazki aipatzen ez bada ere, oraingo testuinguru historiko honetan badirudi literatur agerpenak bi modutan ikusi behar direla: batetik, europar kultura komunaren fruitu legez eta, bestetik, kultura propio bakoitzaren ekarpen legez. Kultura komunak kultura partikularrak aberasten ditu, eta alderantziz.

Hizkuntza klasikoek, berriz, laguntza ezin hobe eman ahal digute europar sustrai komunak eta elkar eraginak ondo ezagutu eta ulertzeko.

## FILOSOFIA ETA ETIKA

Filosofiarri dagozkion curriculumetan nabarmen-nabarmena da eurodimentsioarekiko lotura zuzena.

Helburuetan honako hauek adierazten dira:

- Ikasleak gai izatea gogoeta kritikoki egiteko, informazioa hautatzeko eta egitateak eta gertaera sozial eta politikoak baloratzeko.
- Ikasleak gogoetok bere praxiarekin erlazionatzea, parte hartzea, bere ideiak defendatzea eta askatasun, justizia eta berdintasunari jarraikiz, gizarte bat sortzea.
- Ikasleak disziplinarrekotasuna oinarritzat hartuta pentsatzea, gogo azturak errotu dakizkion eta era horretara gizabanako kritiko eta sortzailea izan dadin.
- Ikasle hau etorkizuneko europar hiritarra izango da. Morin-ek dioen bezala, europar kulturaren berezitasuna eta balioa berori sortzeko eta garatzeko eran datza. Haren ustez ideien elkar eragite eta konfrontazioa da europar kulturaren ezaugarri nagusia. Europar kultura dialogikoa da.
- Hau guztia eurodimentsioaren barruan hiritartasun aktiboa lantzeko moduarekin erlazionatuta dago.



## NATUR ZIENTZIAK

Arlo hauen curriculumetan bilduta dagoen bezala, funtsezko kontua da ezagutza hauek, ahal den neurrian, egunerokotasunarekin erlazionatzea eta metodo zientifikoa gizartearen arazo batzuk aztertzeke erabiltzea: ingurumena, desarrollismoa, kontsumismoa eta abar.

Gai horietan Europako erakundeek eragin handia dute, arazoak berak zein soluzioak planteatzeko orduan.

Ikasleak konturatu behar dira Europak zeregin ezin garrantzitsuagoa duela gai hauetan eta beraiek badituztela irtenbideak bilatzeko tresna batzuk.

Bestalde, gure ikasleen artean ikertzeke gogoia sortu eta zabaltzeke, komenigarria izango litzateke europar ekarpen zientifikoa ezagutzea eta oraingo ikergai berriak ikustea, horrela ikuspegi zientifikoa berrien jakitun izango baitira.

## MATEMATIKA

Irakasgai honetako curriculumetan gomendatzen da, ahal den neurrian, egunerokotasuneko datu eta problemak erabiltzea. Era berean egokia da europar problemak edo erabakiak erabiltzea, eragin handia baitute gure ingurune lokalean eta egunerokoan.

Era horretara, tratamendu estatistikoak lagun diezaiotke ikasleari errealitatea prozedura matematikoekin aztertzen eta, horrela, iritzi erreal eta objektiboagora iristen.

## TEKNOLOGIA

Irakasgai honen –eta batxilergo teknologikoaren– curriculumean helburu nagusia gure gaitasuna europar komunitatearen mailara jasotzea da.

Gure ikasleek jakin behar dute teknologia gure eguneroko bizimoduaren arlo guztietan bizi-bizirik dagoela eta hiritarrak, elementu teknikoak erabiltzaile zein kontsumitzaile baita, ezagutza teknologikoak behar-beharrezkoak dituela.

Horregatik, gure ikasleek kritika eraikitzailea berenganatu eta garatu beharko dute teknologiaren arazoei aurre egiteko. Hori guztia europar espazio teknologiko berriaren jaiotzarekin erlazionatu beharko da, horrek markatzen baitu, gero eta gehiago, gure gizartea.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu, europar joerei jarraikiz, ikastetxeen arteko informazio eta ideien trukea bultzatu eta sustatu behar dela, gero eta bitarteko tekniko hobekaituguru.

## INFORMATIKA

Funtsezkoa da gure ikasleek oinarrizko ezagupen eta trebetasunak berenganatzea, irakasgai honi dagozkion baliabideak erraz erabiltzeke, hori baita europar hezkuntza-sistemek daramaten bidea.



Irakasgai honek oso zeregin garrantzitsua du Europako testuinguruko ikasleekin erlazionatzeko edo trukeak egiteko. Gainera, ikasleari europar espazioan eskaintzen diren programetan sartzeko aukera eman diezaioke. Horrela ugarituko ditugu gure ikasleen prestakuntza eta lanerako aukerak.

## MUSIKA

Irakasgai honek ederki lagun diezaioke ikasleari Europan bizi diren eta elkarri eragiten dioten errealitate kulturalak ezagutzen.

Beraz, gure jarduerak bi arlo hauetara bidera daitezke:

- Musika ondare komuna ezagutzea
- Herri bakoitzaren berariazko ekarpena ezagutzea.

Komenigarria izango litzateke europar kultura batzuen musika adierazpenak ezagutzea eta ohartzea arte agerpen guztiak elkarrekiko komunikazioan eta eraginean oinarritzen direla.

## GORPUTZ HEZIKETA

Kirol eta ariketa fisiko ezberdinak ezagutu eta praktikatzeko lagungarri izan behar du irakasgai honen zehar- aukerak garatzeko eta europar eraikuntzak bultzatzen duen, edo bultzatu beharko lukeen, integrazio sozial eta kulturala sustatzeko.